

8. DIRU SARRERAK

Gure sentsorea ekoiztea 152,74€ kostatuko da eta 200,99€tan salduko dugu, beraz, %31,59ko irabaziak edukiko ditugu sentsore bakoitza saltzeagatik. Beste aldetik gure kaskoa ekoiztea 19,03€ kostatzen da eta 100€-tan salduko dugu modelo arrunta, beraz %81.17ko irabaziak izango ditugu, kaskoa pertsonalizatu nahi izanez gero, 25€ ordaindu beharko da aldaketa bakoitzarengatik, adibidez: kolorea, diseinua...

Aplikazioaren funtzio basikoak dohainik dira. Funtzio bereziak nahi izanez gero, 5,99€ ordaindu beharko dira hilabetero.

Hitzaldi bat eskatu nahi baduzu gurekin kontaktatu eta akordio batera iritsiko gara, hitzaldia ordu eta erdikoa da eta prezio itxia dauka, 250€ hitzaldia.

Aurrezteko pack-a:

1-Kasko pertsonalizatua+Sentsorea+3 hilabete aplikazioa dohainik → 315€

2-Kaskoa+Sentsorea+3 hilabete aplikazioa dohainik → 280€

Deskontuak:

Black friday %5eko deskontua artikulu guztietan (Hitzaldiak ez)

Urtarrilaren 7tik 20ra %7ko deskontua (Hitzaldiak ez)

Etorkizunari begira, kaskoa alde batera uztea eta beste produktu bat saltzen hastea pentsatu dugu. Kaskoa material birziklatuz egitea pentsatzen genuen arren, ez dugu uste munduaren alde gauza handirik egingo genuenik, horregatik kontsumitzailearen kaskora egokitutako zorroak egitea pentsatu dugu. Hau burutu ahal izateko, bezeroak bere kaskoa bidaliko digu fabrikara eta guk 3D eskaner baten bidez, bezeroaren kaskoa eskaneatuko dugu. Eskanerrak emango digun 3D diseinuan oinarrituz bezeroaren kaskoari "karkasa" pertsonalizatu bat egingo diogu 3D makina bat erabiliz. Horrela gure sentsorea babestuta egongo da edozein kolperen aurrean.

Prozesua berdina izango da, plastiko birziklatua txikituko dugu eta makina 3Dari esker sortuko ditugu gure piezak. Honi esker, bezeroak bere kasko zaharrari bigarren bizi bat eman diezaioke eta hondakin gutxiago sortuko du.

Prozesu hau azkarragoa eta seguruagoa izango da, izan ere, ez dugu kaskoak homologatzen denbora gastatuko eta ez dugu kaskoa zerotik egin beharko.

Plastiko kopuru berdina erabiliko dugu eta prezioa berdina izango da, 100€. Prezioaren arrazoia ekoizpen prozesuan erabilitako makina garestiak eta proiektu honen atzean dagoen ikerketa prozesua da.

Gure diru sarrerak aldakorrak izango dira eta hauek salmentaren arabera aldatuko dira.

